

IRAKASKUNTZA-GIDA

2014/15

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25933 - Komunitaterako Gizarte Langintza

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Deskripzioa:

Irakasgai hau, Gizarte Langintzaren Oinarriak, metodologiak, teoriak eta teknikak Moduloaren (54 ECTS) parte da, eta zehazki Gizarte Langintzaren metodoak, ereduak eta teknikak Materiaren (30 ECTS) kokatuta dago. Irakasgaiak guztira 6 kreditu ECTS dauzka, horietatik 4,5 teorikoak eta 1,5 praktikoak izanik.

Irakasgai honen irakaskuntza helburuak zenbait dira: a) Komunitatearen azterketa burutzea, Gizarte Langintzaren esku-hartzearen objektu eta subjektu den heinean; b) Gizarte Langintza bere esku-hartze eremu zabalenean kokatzea; c) esku-hartze komunitarioaren oinarri teorikoak eta prozedura metodologikoa ezagutzea; eta d) esku-hartze komunitarioko esperientzia ezberdinei hurbilpena egitea, batez ere ikaslegoaren testuinguru hurbilean ematen direnak.

Gaitasun orokorrak:

1. Gizarte fenomeno, errealitate eta arazo ezberdinak ezagutu, ulertu eta horiei buruzko hausnarketa kritikoa egitea.
2. Pertsonen bizi-baldintza eta beharrak haiekin lantzea eta baloratzea.
3. Gizarte Langintzaren oinarri, metodologia, eredu eta teknikei buruzko ezagutza barneratu eta aplikatzea.
4. Gizarte proiektu, programa, plan eta politikak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen jakitea.

Gaitasun espezifikoak:

1. Gizarte errealitatearen azterketa kritikoa egitea, hiritargoaren ongizate kolektiboan modu negatiboan eragiten duten egoera-arazoak identifikatu ahal izateko.
2. Komunitaterako Gizarte Langintzaren oinarri teorikoan egoki menperatzea.
3. Ekintza kolektiboaren bidez pertonen eta taldeen bizi-baldintzak hobetzera zuzendutzen diren prozesu komunitarioak identifikatzea.
4. Komunitate mailako giza eta gizarte baliabide ezberdinak ezagutzea, horien erabilera eta promoziorako.
5. Esku-hartze komunitarioaren prozedura metodologikoa ezagutu eta aplikatzea.

Zeharkako gaitasuna:

1. Disziplina anitzeko ikuspegi batetik gizarte errealitatearekiko sentsibiltate kritikoa indartzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Komunitaterako Gizarte Langintzari sarrera

I. Unitatea. Komunitaterako Gizarte Langintzaren oinarri teorikoak

1go gaia. Komunitaterako Gizarte Langintzaren karakterizazioa eta xedea

- 1.1. Komunitatearen azterketa kontzeptuala: definizioak, elementu estrukturalak, kritikak eta kontzeptu alternatiboak
- 1.2. Komunitaterako Gizarte Langintzaren karakterizazioa
- 1.3. Komunitaterako Gizarte Langintzaren objektua eta subjektua

2. gaia. Komunitaterako Gizarte Langintza ikuspegi historikoan

- 2.1. Esperientzia praktiko aintzindariak
- 2.2. Aurrekari teoriko nagusiak
- 2.3. Komunitaterako Gizarte Langintza Estatuan eta Euskadin

3. gaia. Komunitaterako Gizarte Langintzaren eredu teorikoak

- 3.1. Teoria soziologikoen eragina
- 3.2. Eredu teoriko nagusiak eta haien aplikazioa

4. gaia. Parte-hartzea eta Komunitaterako Gizarte Langintza

- 4.1. Gizarte parte-hartzea eta horren modalitateak
- 4.2. Elkartegintza eta boluntariora
- 4.3. Gizarte mugimenduak

5. gaia. Komunitaterako Gizarte Langintzaren egungo erronkak
5.1. Gizarte eta komunitate testuinguru berria
5.2. Komunitaterako Gizarte Langintzaren potentzialitate eta limiteak

II. Unitatea. Esku-hartze komunitariorako metodologia

6. gaia. Komunitaterako Gizarte Langintzaren prozedura metodologikoa: diagnostiko komunitarioa

METODOLOGIA

Irakaskuntza aktibitateak:

Azalpen teorikoak

Irakurgaien banakako eta talde osoko lanketak

Gizarte-sareen mapa osotzeko talde lana

Komunitate jakin baten azterketa eta diagnostiko komunitarioa egiteko talde lana

Banakako lanak

Esperientzia komunitario ezberdinak aurkezten dituzten bideo laburren talde osoko azterketa eta eztabaidak.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda:

M: Maistrala

S: Minteakia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoa

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktika (ariketak, kasuak edo buruketak) %
- Banakako lanak %
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) %

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaia ebaluatzeko prozedurak bi dira:

a) Eduki teorikoen ebaluazioa:

a.1) Banakako bi lan, azken notaren %20 balioarekin. Lan horietan, irakasgaian zehar landutako bi gaiei buruz, irakasleak proposatutako liburu kapitulu edo artikulua jakin baten azterketa, uztarketa teorikoa eta balorazio kritikoa egingo da.

a.2) Irakasgaia amaitzean froga idatzia edo azterketa gaia ezberdinen garapenerako, azken notaren %40 balioarekin.

b) Eduki praktikoen ebaluaziorako, irakasgaian zehar eta 3-4 pertsonetako talde lanean osoturiko azterketa eta diagnostiko komunitarioa burutuko da, horretarako behaketa, sakoneko elkarrizketa eta dokumentarioaren azterketa aplikatuko direlarik. Talde lan honek azken notaren %40 balioa izango du.

Irakasgaia gainditzeko, ezinbestekoa da lan guztiak, banakakoak eta taldekoak, entregatzen. Baldintza hau, araudiak barnebiltzen dituen arazoaren batengatik eskoletara etorri ezin diren ikasleei ere dagokie.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Ikasmateriala: BERASALUZE CORREA, Ainhoa, Irantzu MENDIA AZKUE eta Edurne ARANGUREN VIGO (2011), Komunitateko gizarte-langintzaren oinarri teorikoak, UPV/EHU.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

ANDER-EGG, Ezequiel (2000), Metodología y práctica del desarrollo de la comunidad, Lumen, Buenos Aires.

BARBERO, Josep Manuel eta Ferrán CORTÉS (2005), Trabajo Comunitario, organización y desarrollo social, Alianza, Colección Política Social/Servicios Sociales, Madrid.

LILLO, Nieves eta Elena ROSELLO (2001), Manual para el Trabajo Social Comunitario, Narcea, Madrid.

MARCHIONI, Marco (2004), La acción social en y con la comunidad, Certeza, Zaragoza.
MARTÍ, Joel eta Óscar REBOLLO (2005): Participación y desarrollo comunitario en medio urbano: experiencias y reflexiones, IEPALA, Madrid.
NAVARRO, Silvia (2010) (2ª ed.), Redes Sociales y construcción comunitaria. Creando (con)textos para una acción social ecológica, CCS, Colección Intervención Social, Madrid.

Gehiago sakontzeko bibliografia

DEL RIO ALDASORO, Jesús (2003), Esku-hartze komunitarioen metodologia, Eusko Jaularitz, Vitoria-Gasteiz.
FERNÁNDEZ GARCÍA, Tomás eta Antonio LÓPEZ PELÁEZ (2008), Trabajo Social Comunitario: afrontando juntos los desafíos del siglo XXI, Alianza, Colección Política Social/Servicios Sociales, Madrid.
MALAGÓN BERNAL, José Luis eta José Luis SARASOLA SÁNCHEZ-SERRANO (2006) (2ª ed.), Fundamentos del Trabajo Social Comunitario. Bases teóricas y metodológicas para la intervención comunitaria, Aconcagua Libros, Sevilla.
MANZANOS, César (coord.) (2012), Mediación y participación en conflictos para transformar la sociedad (comunitaria, política, económica, familiar y penal), Ponencias de Congreso, Escuela Universitaria de Trabajo Social (UPV/EHU), Vitoria-Gasteiz, 8 y 9 de noviembre de 2012, Ed. Ikusbide.
MARTÍNEZ HERNÁNDEZ, Eva eta Lucía PEÑA MARTÍNEZ (coords.) (2010), REDefiniendo el trabajo comunitario, Ponencias de la III Jornada de Trabajo Social, Escuela Universitaria de Trabajo Social (UPV/EHU), Vitoria-Gasteiz, 25 de marzo de 2010.
ROBERTIS, Cristina eta Henri PASCAL (1994), La intervención colectiva en trabajo social, El Ateneo, Buenos Aires.
SAEZ, M. eta D. Muñoz (coords.), Nuestros barrios, nuestras luchas. Experiencias de intervención en barrios periféricos, Zambra/Baladre y La Burbuja, Valencia.
SUSMOA (2009), Pisando charcos. Una experiencia de trabajo comunitario en barrios, Zambra/Baladre, Málaga.

Aldizkariak

- Comunitaria. Revista internacional de trabajo social y ciencias sociales: <http://www.comunitania.com/>
- Entorno social. Publicación sobre información social y sanitaria: <http://www.entornosocial.es>
- Cuadernos de Trabajo Social. Universidad Complutense de Madrid: <http://revistas.ucm.es/index.php/CUTS>
- Zerbitzuan. Gobierno Vasco: <http://www.zerbitzuan.net/>
- Revista Cáritas: http://www.caritas.es/publicaciones_info.aspx?Id=349

Interneteko helbide interesgarriak

- Coordinadora Baladre: <http://www.coordinacionbaladre.org/>
- Instituto Marco Marchioni. Red de encuentro, intercambio y debate de la democracia participativa:
- <http://institutomm.ning.com/>
- Grupo de investigación Parte Hartuz (UPV/EHU): <http://www.partehartuz.org/prin.htm>
- Intervención Social. Gabinete de Servicios Sociales: <http://www.intervencionsocial.com>

OHARRAK